

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea Gaubeako udal igerilekuen eta kirol instalazioen zerbitzua eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen dituzten zerga ordenantzen aldaketari**

Udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 31n eta maiatzaren 31n egindako ohiko bilkura bitan, erabaki zuen hasierako onespena ematea, hurrenez hurren, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta Gaubeako udal igerilekuen eta kirol instalazioen zerbitzua arautzen dituzten zerga ordenantzen aldaketari.

Eta betetzeko toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 65.2 artikuluetan eta toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Gaubea, 2020ko ekainaren 10a

*Alkate-lehendakaria*

*JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI*